



## ANTOLAMENDU-TXOSTENA

<b>Dokumentua:</b>	IO-2018-004
<b>Izendapena:</b>	Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko Legea Aldatzeko Lege Aurreproiektua.

**Egilea:**

Sin.: Jesús Mesa Ortiz

Proiektu-arduraduna

Data: 2018-03-02

**Onartua:**

Sin.: Javier Bikandi Irazabal

Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa  
Berritzeko eta Hobetzeko zuzendaria

Data: 2018-03-02



**ANTOLAMENDU-TXOSTENA**

**Dokumentua:** IO-2018-004

**Orria:** 2/5

**Proposamena:**

---

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzak, transmisio telematiko baten bidez, eskatu digu txosten bat egin dezagun Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko Legea Aldatzeko Lege Aurreproiektu buruz. Transmisioa 2018ko otsailaren 22an sartu zen Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzan (aurrerantzean, DACIMA).

Lege-aurreproiektuaren xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko Legea aldatzea, eta honako zati hauek ditu:

- Azalpen-zatia.
- Beste zati bat xedapenetarako, 45 artikulurekin.
- Azken Zatia, xedapen gehigarri batekin, xedapen iragankor batekin, xedapen indargabetzaile batekin eta bi azken xedapenekin.

**Balorazioa:**

---

Aztertu dugu lege-aurreproiektua, eta zera adierazi behar dugu:

A) Egiturazko eta antolamenduzko alderdiei dagokienez:

Esatekorik ez dugu, ez baitirudi alderdi horiei eragiten dien ezer aldatzen denik.

B) Prozedura-alderdiei dagokienez:

Lege-aurreproiektuaren lehen artikulua idazketa berria ematen dio Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legearen 1. artikuluari (aplikazio-eremua).

DACIMAK, lehenengo artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta, ondo baloratzen du foru-erakundeei eta toki-entitateei erreferentzia egitea, uste baitu idazketa berriarekin legeko estaldura ematen zaiela egon daitezkeen hutsuneei.

**ANTOLAMENDU-TXOSTENA****Dokumentua:** IO-2018-004**Orria:** 3/5

Lege-aurreproiektuaren hirugarren artikulua idazketa berria ematen dio Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legearen 2. artikuluko 1. atalari.

DACIMAK, hirugarren artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta, proposatzen du 2.2 artikulua ere aldatzea, honela: "Atalburu horretan, lege honetan..." jartzen duen tokian, jarri behar du "Aplikatzekoa den Estatuko oinarriko legerian, lege honetan..."

*Lege-aurreproiektuaren hogeita zortzigarren artikulua* idazketa berria ematen dio Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legearen 35. artikuluari ("Alderdietako baten eskaeraz hastea").

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 63.1 artikulua ezartzen duenez, zehapen-prozedurak ofizioz hasiko dira beti, organo eskudunaren ekimenez, eta behar den bezala bereiziko dira haietan instrukzio-fasea eta zehapen-fasea; organo banaren esku utziko dira bata eta bestea. Lege honen Azken Xedapenetako Lehenengoak ezartzen du Estatuko oinarriko lege bat dela. Lege honen xedapen indargabetzaile bakarrak xedatzen duenez, lege honetan xedatutakoaren aurka dauden maila bereko nahiz beheragoko mailako arau guztiak indargabetu dira.

Gobernu Kontseiluak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren zehapen-prozedurak elektronikoki izapidetzeko jarraibidea onartu zuen 2017ko otsailaren 7an. Zehapenak digitalizatzeko prozesua egin bitartean, erakunde kudeatzaileek desadostasuna agertu dute zehapen-prozedura interesdunaren eskariz hastearekin. Oraindik erabili ez denez, aukera ona izan daiteke hura mantentzearen egokitasuna zalantzan jartzeko.

DACIMAK, azaldutakoa kontuan hartuta, uste du lege-proiektuaren hogeita zortzigarren artikuluko "zehapen-prozedura interesdunaren eskariz hastea" Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 63.1 artikuluan xedatutakoaren kontrakoa izan daitekeela.

Lege-aurreproiektuaren hogeita hamaikagarren artikulua 36 bis (Instrukzio-egintzak) artikulua berria gehitu du Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean.

**ANTOLAMENDU-TXOSTENA**

**Dokumentua:** IO-2018-004

**Orria:** 4/5

DACIMAK, hogeita hamaikagarren artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta, ondo baloratzen du ebazpena eman beharra eragin duten egitateak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatze behar diren instrukzio-egintzak bitarteko elektronikoz egitea 39/2015 Legearen 75. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Lege-aurreproiektuaren hogeita hamabosgarren artikulua idazketa berria ematen dio Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legearen 39. artikuluari (Entzunaldia interesatuari).

DACIMAK, hogeita hamabosgarren artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta, uste du interesdunen eskueran ebazpen-proposamenaren zirriborroa jartzeak zehapen-prozedura hobetzea dakarrela, prozesuko bermeak handitzen baititu.

Lege-aurreproiektuaren hogeita hamaseigarren artikulua idazketa berria ematen dio Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legearen 40. artikuluari (Epeak murriztea eta luzatzea).

DACIMAK, hogeita hamaseigarren artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta, uste du 48. artikulurako erreferentziaren ordean 43. artikulua (Iraungitzea) jarri beharko litzatekeela, horretan aipatzen baita prozedura hasten denetik iraungitzen den arteko sei hilabeteko epea. Gauza bera esan daiteke hogeita hamazazpigarren eta hogeita hemezortzigarren artikuluei buruz.

Lege-aurreproiektuaren hogeita hamazortzigarren artikulua idazketa berria ematen dio Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legearen 43. artikuluari (Jardunbidearen ebazpena).

DACIMAK, hogeita hamazortzigarren artikuluan xedatutakoa ikusita, ondo baloratzen du prozeduraren ebazpena elektronikoki ematea.

DACIMAK, oro har, uste du artikuluen idazketa berriak eta artikuluei buruzko berriak bat datozeela Estatuko oinarrizko araudi berriarekin, bereziki 39/2015 Legearekin eta 40/2015 Legearekin; horrenbestez, ondo baloratzen ditu egindako eguneratzeak.

**ANTOLAMENDU-TXOSTENA**

**Dokumentua:** IO-2018-004

**Orria:** 5/5

Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko Legearen aldaketekin lotutako prozedurei buruzko informazio publikoa herritarrek lortzeko aukera ahalbidetzeko, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak Euskadi.eus atariaren bitartez eman beharko du.

**Ondorioak:**

---

Gobernantza Publiko eta Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 71/2017 Dekretuaren 11. artikulua bitartez izendatutako eginkizunekin bat etorriz, antolamendu-diseinuaren eta prozeduren ikuspegitik, DACIMAK ohar horiek egiten dizkio Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko Legea Aldatzeko Lege Aurreproiektuari.